

## MARKINAKO LORE JOKOAK

*Markina, 1983-XI-25*

*J. M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal*  
*Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburuordea*

Bene benetan oso zaila zait hemen entzundakoari baliozko hitzik erans-tea. Ez bait nuke aurrekoen mailara iritsi ahal izango.

Eta nereak ez direla konpromezuzko berbak ba dakizue. Behintzat eza-gutzen nauzuenek nola pentsatzen dudan garbi duzue eta.

Gaur Eusko Jaurlaritzaren izenean zuengana azaltzea suertatu zait. Euskaltzain urgazle izatearen eskubideak zuen artean egoteko aukera ematen dit, baina ez da era honetan agertzen naizela, gaurregun euskaldunok dugun lehen erakundearen izenean, baizik. Eta, zer esanik ez, honek ohore ematen dit. Ohore eta erresponsabilitatea.

“Markina’ko Lore Jokoak” ekintzak ehun urteurrena betetzen du, hurrengo urteetan, oker ez banago, Durango eta Gernikakoek beteko duten bezalaxe.

Jean Louis Davant’ek ondo azaldu du Joko hauen arrazoi eta zergaitia. Eta, ausartuko nintzateke esatera, gaurregun ere beharrezkoak ditugu honela-ko jaiak, euskal kontzientzia zutik irauterazteko laguntzen baitute. Eta edo-zertan lan egin behar badugu horretantxe da, hain zuzen ere, euskal kontzien-zia —NAZIO KONTZIENTZIA— sortu eta indartzen.

Hainbat bider idatzi dut nik HIZKUNTZA ETA NAZIO konzeptuen arteko erlazioaz. Abertzale sentitzen den gobernu batek ontzat eman behar du binomio horren garrantzia eta funtsa.

Eta Kultura Sailari dagokionez, behintzat, hori aspaldidanik dagoela *arau* eginda aitortu behar dut. Eta gure hauetan irauten dugun bitartean —ziur zaudete!!— ez zaituztegu bertan behera utziko. Zuei laguntzean ABE-*RRIARI* laguntzen ari baitgatzaizkio.

Euskaldunok gure euskeraren alde daukagun burruka historikoa ez ezik baita eredugarria ere dela esan behar da. Orain arte inolako ofizialtasunik gabeko erakundeak izan badira ere borroka horren eragileak, gaurregun ba dugu Gobernu bat *betiko borrokalari* horien asmoak burutu behar dituen. Euskadi euskalduntzea prozesu luzea eta nekea izango bada ere fede osoa dut

ipinita enpresa honetan. Eta nik bezala pentsatuko duzelakoan nago. Baina aurreko hitzek ez dute esan nahi behetik goruntza joan daitekeen indarra alperrikakoa denik. Ezta are gutxiagorik ere. Sekula baino garrantzitsuagoak ditugu Euskaltzaindia eta gainerakoak.

Eta sekula baino premiazkoagoak ditugu Udalek antola ditzaketeen Joko hauen moduko ekintzak, herriak eta herritik sortutako kezka, emaitza, ondorio, fruitu... bideratzeko aukera egokiak baitira.

Beraz, nire partetik eskerrik beroenak Udalari eta Euskaltzaindiari. Ekin eta jarrai.